

Eskaneaketarako eta ZDM fabrikaziorako robot kartesiarra M3 softwarrarekin



Vulkan piezen neurketarako, eskaneaketarako eta digitalizaziorako robot kartesiar bat da. Horrela Innovaliak, ZDM kontzeptua bultzatzen du eta fabrikazioan eta produkzioan kalitate-kontrola bermatzen du. Gaur egun fabrikazio prozesuetan kalitate-kontrola pieza bukatu ostean egiten da. Produkzio prozesuan zehar ezin da inolako korrekziorik egin desbiderapen bat badago. Hori dela eta, piezek tolerantziak edo eskakizunak ez badituzte betetzen, piezak atzera bota beharra dago. Fabrikazio prozesuan Vulkan aktiboaren integrazioarekin ekoizpen zikloan zehar piezak monitorizatu daitezke eta piezaren egoeraren erreferentzia zehatzagoak eta eguneratuagoak eduki daitezke. Horrela, ekoizpenaren kontrola handitzen da eta piezen ezeztatzea txikitzen da. Vulkanri esker, robot eta 3D eskaneaketari esker, produkzioaren inspeksioan eta piezen kontrol dimentsionalean kalitate maila egokia bermatzen da. Zurruntasun handiko egitura duen beso horizontaldun makina bat da. M3 Software Errendimendu altuko softwarea puntu hodeiak hartzeko eta analizatzeko. M3 puntu hodeiak eskaneatu eta kudeatu egiten ditu era arin, eraginkor eta errez batean. Geometrien ekstrakzio prozesua Eskaneaketa prozesuarekin lortutako datuen prozesamendua, puntu hodeiak inportatzean, hartutako datuen zarata txikitzean eta puntu kopurua txikitzean datza. Prozesu hauek aurredefinitutako filtro batzuen bidez egiten da. Prozesu honekin puntu hodei ezberdinak konbinatu daitezke. Prozesamenduarekin puntu hodei konbinatuak lortzen dira, garbiak eta formatu egokian.

EKIPO ETA OSAGAI GARRANTZITSUENAK

▀ Cabezal con punta de contacto

Kontaktu punta duen burua, palpadoreak neurtu nahi den pieza ukitzen du eta sondak duen mekanismoa mugitu egiten da, neurria hartuz sortzen den seinalearen arabera

▀ M3 server

M3 server, M3-ren datu baseak VPX(Virtual Part Exchange) estandarra erabiltzen du. Estandar honekin informazioa gorde, trukatu eta filtratu daiteke efizientzia handiz, datu basea zuzenean

softwarearekin eta eskaneaketa sistemarekin konektatuz.

▸ **Sensor óptico OptiScan**

Optiscan sentsore optikoa, eskaneaketarako sentsore laserra, doitasun handiko 3D digitalizazioa ahalmentzen duena.

▸ **Software M3**

M3 softwarea, errendimendu altuko softwarea puntu hodeiak hartzeko eta analizatzeko.

▸ **Vulkan Gage**

Vulkan, Egitura solidodun altzairuzko robot kartesiarra beso horizontalduna



basqueindustry.eus



AKTIBOAK ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZUAK

Emitzen analisia

Innovaliaren M3 softwareari esker pieza errealaren eta teorikoaren arteko desbiderapena ikusi daiteke. M3 Analytics SPC softwareari esker emitzen analisi estatistikoa egin daiteke.

Formazioa

Ikastaro presentzialak teknologia hibridoan kontrol dimentsionalari buruz eta emitzen analisisian.

Puntu hodeien analisia

Innovaliak puntuak hartzeko eta analizatzeko errendimendu handiko softwarea garatzen du. Konpatiblea da neurketa sistema ezberdinekin.

Robot bidezko neurketa eta kalitate kontrola

Vulkan robotarekin hainbat soluzio eman daitezke piezen digitalizazioan, alderantziko ingeneritzan eta doitasun handiko neurketan.

AKTIBOA KUDEATZEN DUEN ERAKUNDEA



ASOCIACIÓN DE EMPRESAS TECNOLÓGICAS INNOVALIA

Harremanetarako pertsona:

Alicia González Cabestros



basqueindustry.eus

